

Funtsezko elkarteak

Gure proiektua aurrera eramateko funtsezko bazkideak, edo lagunduko diguten bazkideak izango ditugu zerbitzua ahalik eta jende gehiagok kontratatzeko, eta modu efizienteago batean lan egiteko, kalitate hoberena bermatzen. Horretarako, beharrezkoak izango liratekeen elkarteak **Barakaldoko Udala, Gurutze Gorria, Eusko Jaurlaritza, eta Albaitari bat** dira.

Barakaldoko Udala gure funtsezko bazkide bat izango da. Gure enpresa Barakaldon kokatuta dagoenez, gure abiapuntua izango da lanean hasteko. Haien xedea biztanleriaren ongizatea lortzea denez, pertsona nagusien bizitza alaitzea bilatzen dugu gure enpresaren bitartez. Horregatik, udalarekin kontaktua mantendu behar dugu. Udalak herriaren biztanleria osoaren informazioa dauka eskuetan. Orduan, hau kontuan izanda, bakarrik bizi diren aiton amonak lagundu dezakegu. Datu hauen bitartez, komunikatu gaitezke herritar hauekin eta haien bakardadearekin amaitu dezakegu. Udalak eskuratuko dizkigun kontaktuekin, maskota bat eskainiko diegu adinagusiei. Barakaldoko udalak argitaratu duenez, Barakaldon 80 urtetik gorako 2.580 pertsona baino gehiago bizi dira konpainiarik gabe, eta horietatik 588 orain arte ez dute inolako laguntzarik izan.

Horregatik, animalia baten konpainia oso onuragarria izan daiteke haien bizitzan. Gainera, gure zerbitzua bakarrik egunean zehar maskotarekin egoteko izan daiteke edo; aldiz, gauetan zehar ere egoteko.

Bestalde, Barakaldoko Udalaren bitartez Barakaldoko egoitza publikoekin kontaktuan jarriko gara eta horrela egunean zehar dauden aiton-amonen bizitza hobetuko dugu. Egoera hau bakarrik egoitza publikoetan gertatuko da. Egoitza pribatuekin lan egin nahi izatekotan, gure eskuetan egongo da haiekin kontaktuan jartzea gure zerbitzua eskaintzeko. Barakaldon hainbat egoitza pribatuak daude, hala nola, Sanitas, Vitalia, Santa Teresa edo Clece, Vitam, Altos Hornos egoitza. Guztira Barakaldon 12 egoitza publiko zein pribatu daude, eta, haiekin lan egin nahi izatekotan, kontaktuan jarriko gara.

Beste aldetik, **Gurutze Gorria** gure funtsezko bazkidea izango da, beraiekin akordio bat izango dugulako haiek daukaten medaila sistema kontratatzen duten pertsonen gure zerbitzua eskaintzeko. Haien medaila sistemarekin, bakarrik bizi diren pertsonen medaila bat ematen diote, botoi bat duena. Zerbait gertatzean, botoi horri emanez, anbulantzia bat helbide horretara joaten da pertsona horri laguntzeko. Hau oso erabilgarria da bakarrik bizi diren pertsonentzat erresidentzia batera joan ez nahi edo ezin dutenek. Pertsonak, bereziki adinekoak, beren bizitza independentziaz eta lasaitasunez garatu ahal izateko pentsatuta daude, jakinda Gurutze Gorria haien zain dagoela eguneko 24 orduetan, edozein larrialdiren aurrean arreta emateko eta beren osasuna eta ongizatea zaintzen laguntzeko.

Beraz, elkarte honekin bezero gehiago lortu ditzakegu, badagoelako jende nagusia agian kalera atara ezin ahal dena; ondorioz, haientzat zailagoa izango lirateke gure zerbitzua ezagutzea. Baina, **Gurutze Gorriak** haien zerbitzua eskaintzean, elkarte bat dugunez, gurea aipatzeak, bezero gehiago lortzea eragingo du. Eta haien zerbitzua borobilagoa egingo luke, jende nagusia modu fisikoan laguntzeaz gain, gure zerbitzuak laguntza psikologikoa eragingo baitu.

Aldi berean, medailen zerbitzua duen beste erakunde bat **Eusko Jaurlaritza** da. Hauek duten zerbitzu publikoa, BetiOn, oso merkea da (4€ hilabetero) ahalik eta jende gehiago kontratatu dezan. Gainera, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak, zerbitzu hau dohainik lortu dezakete. Medailen bidez, ez dute bakarrik atentzioa jasotzen behar dutenean, baizik eta aldizkako deien bidez. Informazio eta prestakuntza-kanpainak egiten dituenek, errazagoa da haientzat, eta beraz guretzat, jende gehiagorengana iristea.

Gure helburua Eusko Jaurlaritzarekin bezero gehiago lortzea da. Egindako ikerketa baten arabera, 2023an Bizkaiko %53,52ak kontratatu zuen zerbitzua. Beraz, berriz ere, haien zerbitzua eskaintzean gurea aipatu dezakete.

Gure beste funtsezko bazkideetako bat **albaitaritza zerbitzua** da, profesionalekin harremanetan egongo gara gure animaliak ahalik eta tratu eta zaintza hoberena jaso dezaten. Albaitari-zerbitzua bi hilean behin izango da, guztia ordenan dagoela ziurtatzeko eta edozein ondoez edo gaixotasun garaiz detektatu ahal izateko.

Duela gutxi egindako ikerketa baten arabera, katuen %50a baino gehiago ez dira albaitariarengana joaten, eta jabeen % 27,5ek bakarrik ziurtatzen du txakurra albaitariarengana eramaten duela. Horregatik, profesional gisa egiten den gure lanaren zati handi bat maskotek ahalik eta osasun onena izatea da.